19 nº zbk

Beasaingo Udala

# Beasaindik

OCTUBRE **2017** **URRIA**

**Udal Aldizkaria** *Revista municipal*




## Herriko kirol eremuen erabilera areagotuz

## *Actuaciones para aumentar el uso de los espacios deportivos del municipio*

## AURKIBIDEA | *ÍNDICE*

**ETORKIZUNEKO BEASAIN ERAIKITZEN**

**2** ¬ Kirol instalazioak hobetuz
¬ *Ideas para renovar Dolareko parkea*
¬ Loinatz futbol zelaiaren erabilera nabarmen areagotu da
¬ UNAI ZURUTUZA- Beasain KEko Kirol zuzendaria

**BEASAIN, HERRI BIZIA**

**4** ¬ Downhill
¬ BKL eta Beasain KEren aurkezpenak
¬ Igartza Literatur Beka
¬ Txirrindularitza: XXXVI. Beasain proba
¬ Beasain futbol festa
¬ Auzoetako jaiak: Beasainmendi eta Igartza Loinatz
¬ Igeriketa
¬ Igartzako duatloia

**BEASAINDARRAK PROTAGONISTA**

**6** ¬ Merkataritza Lagunkoia
*Comercio Amigable*

**BEASAINDARRENTZAKO INFORMAZIOA**

# GUTUNA



**Elena Ruiz**
Kiroletako zinegotzia

**KIROL INSTALAZIOAK HOBETUZ**

Udalak Antzizar Kiroldegiko instalazioak hobetzen jarraitu du, baita udan ere. Orain arte eraberritu diren aldagelen ondotik, abuztuan, taldekako 2 aldagela txukundu dira eta dutxa esparruak erabat berritu dira. Era berean, kiroldegiko fitness gimnasia lekuan eraginkorragoak diren LED argiak ezarri dira, argiaren kalitatea hobetzeko eta bereziki, energia kontsumoa murrizteko eta energia aurrezteko, udalerri jasangarriago baten alde eginez.

Ez dira kirol instalazioak hobetze bidean gauzatutako ekimen bakarrak izan, garrantzitsuena, duda izpirik gabe, Loinatz futbol zelaiko belar aldaketa izan baita.

Egindako lanei esker zelaiaren erabilera areagotzea lortu dugu eta gauza bera gertatuko da kiroldegiko kanpoko igerilekuetan belar artifiziala jartzen denean; neguan ere erabiltzeko aukera izango da eta.

Beraz, orain arte bezala jarraituko dugu lanean, zuen beharrei erantzunez eta aukera berriak jorratuz, kalitatezko kirol instalazio eta zerbitzuak eskaintzea delako gure helburua beasaindar guztiok kirola praktikatzeko aukera izan dezagun, horretarako eremu egokiak bermatuz.

***Mejorando los espacios deportivos de Beasain***

*Responder a las necesidades de la población y de los grupos deportivos de Beasain es nuestra prioridad. Por ello, durante este año hemos renovado varios vestuarios del polideportivo y en verano se han mejorado los vestuarios de grupo y el gimnasio de fitness. Concretamente, hemos renovado los espacios de ducha e instalado luces LED para reducir el consumo de energía.*

*La actuación más importante, si cabe, ha sido el cambio de césped del campo Loinatz. El mal estado del mismo requería una actuación para poder mejorar su aprovechamiento. Ahora todos los equipos del club pueden hacer uso de este espacio y la hierba artificial que se está instalando en las piscinas exteriores permitirá también utilizar dicho espacio en invierno.*

*Escuchar y responder. Buscar y ofrecer. Trabajar y solucionar. Ese es nuestro modelo de gestión. Así hemos trabajado hasta ahora y así lo seguiremos haciendo, tanto en el ámbito deportivo, como el resto de los ámbitos.*

## *IDEAS PARA RENOVAR DOLAREKO PARKEA*



*Nadie mejor que las y los beasasaindarras para proponer y decidir qué hacer en este parque que lleva 30 años formando parte de Beasain. Con el paso del tiempo se ha ido deteriorando y hoy día es un espacio infrautilizado a pesar de encontrarse en un lugar privilegiado.*

*Por ello, el Ayuntamiento ha considerado necesario actuar en este espacio, respetando, en cualquier caso, su identidad y estructura y para hacerlo quiere contar con las ideas, sugerencias y aportaciones de la ciudadanía. Para ello, el Ayuntamiento ha elaborado un formulario, ha colocado una carpa informativa y a lo largo del mes de octubre llevará a cabo diversos talleres con personas de todas las edades.*

*A pesar de contar con un presupuesto ajustado, pequeñas obras, mejoras y arreglos permitirán dar vida y nuevos usos a este espacio que ofrece infinidad de alternativas y oportunidades.*

**Udalak Dolareko parkea berritzea erabaki du egun erabilera urria eta itxura zaharkitua baitu. Zer egin erabakitzeko herritarren iritzi eta proposamenak biltzen ari da Udala eta hil honetan 4 tailer egingo dira adin desberdinetako pertsonekin. Prozesua amaitzean herritarren ekarpenak kontutan izanik erabakiko da bertan zer egin, betiere, parkearen ezaugarriak eta egitura mantenduz.**

# LOINATZ FUTBOL ZELAIAREN ERABILERA NABARMEN AREAGOTU DA

Loinatz futbol zelaiaren erabilera areagotzeko helburuarekin belar artifiziala jarri da Klubaren eskakizun eta beharrei erantzunez.

Zuzendaritza taldeak baloiaren baitan jarri ditu 19 talde eta ia 500 neska mutil. Beraz, talde kopuruak nabarmen egin du gora azken urteotan, bereziki, Klubak emakumezkoen futbolaren aldeko apustu garbia egin duelako. Zelaiaren egoerak, aldiz, okerrera egin du eta ondorioz, taldeek ia ezinezkoa zuten bertan entrenatu eta jokatzea, eta gauza bera gertatzen da Igartzako futbol zelaian ere.

Zelaiaren egoera kaskarra kontuan izanda eta aipatu taldeen hazkundeari erantzuteko, futbol zelaiko belarra aldatu da erabilera handiagoa emateko. Horri esker, orain, herriko talde gehiagok dute Loinatz Futbol zelaian jokatzeko eta entrenatzeko aukera.



Proiektu beraren baitan eta kostu gehigarririk gabe, kanpoko igerilekuan belar artifiziala jarriko da; Loinatz futbol zelaiaren proiektu berean hobekuntza modura txertatzea lortu baitzuen Udalak. Igerilekuko zelaiaren egoera kaskarri irtenbidea emateko aldatuko da belarra eta horrek mantenu kostuak txikituko ditu eta eremua neguan ere erabili ahal izango da.

***LOINATZ A PLENO RENDIMIENTO***

*El campo de futbol Loinatz está a pleno rendimiento tras el cambio de césped, ya que ahora más equipos de futbol, tanto femeninos como masculinos, pueden hacer uso de este espacio que antes estaba infrautilizado por el mal estado del césped. Lo mismo ocurre con las piscinas exteriores y gracias a que el Ayuntamiento consiguió incluirlo como mejora en el proyecto, en una segunda fase y con coste 0, se colocará hierba artificial en el mencionado espacio para mejorar su situación y poder utilizarlo también en invierno.*

## UNAI ZURUTUZA- Beasain KEko Kirol zuzendaria

**Zein onura ekarri dizkie zelai berriak bertako taldeei?**

Entrenamenduen kalitatea igo da, talde bakoitzak ordutegi hobeak ditu eta gainera, zelai osoa erabiltzeko aukera dute, beraz, zelai berriak bertako neska mutilen taldeei onura anitzak ekarri dizkie.

**Zelai nagusian jokatu eta entrenatzeak jokalariengan motibazio berezirik eragin al du?**

Adin guztietako jokalarientzat zelai berria opari bat izan da eta ilusio handiz hasi dira bertan entrenatzen eta jokatzen; lehen egunetik oso gustura dabiltza bertan.

**Partidu gehiago bertan jokatuta herritar gehiago hurbiltzen da partiduak ikustera, beraz, zelaiaz haratago, azpiegitura osoari etekin gehiago ateratzen zaiola esango zenuke?**

Dudarik gabe etekin handiagoa ateratzen diogu zelaiari eta honek dituen azpiegiturei. Aurtengo denboraldian lau talde nagusik (hirugarren maila, gorengoen maila, gazteen nazional liga eta nesken euskal liga) jokatuko dute bertan, eta momentuz, jokatu diren partiduetan bertara gerturatu diren herritarren asistentzia handia izan dela esan dezakegu. Oso gustura gaude zelai berriak eskaintzen dizkigun aukera ezberdinekin, lan oso ona egin dute zelairekin.

*"El nuevo césped ha aumentado la calidad de los entrenamientos, los horarios también son mejores y se puede usar todo el campo"*

*"Ha sido un regalo para jugadores y jugadoras de todas las edades y han comenzado a entrenar y a jugar con mucha ilusión. Se encuentran muy a gusto desde el primer día"*

*"Sin duda, estamos aprovechando más tanto el campo como sus infraestructuras. Esta temporada juegan 4 equipos en él y, por el momento, la asistencia de público ha sido notable. Estamos muy contentas y contentos con las oportunidades que nos ofrece el nuevo césped, se ha realizado un gran trabajo"*

# IRAILEAN BEASAINEN




Downhill



BKLren aurkezpena




Beasain KEren aurkezpena





Igartza Literatur Beka






Txirrindularitza: XXXVI. Beasain proba




Beasain futbol festa




Beasainmendi auzoko jaiak



Igartza Loinatz auzoko jaiak



Igeriketa




Igartzako duatloia

## MERKATARITZA LAGUNKOIA

## COMERCIO AMIGABLE

**Beasain lagunkoia Sustraietatik**

Beasain Lagunkoia egitasmoaren baitan, joan den urtean, "establezimendu lagunkoia" egitasmoa abiarazi zen Beasainen eta herriko merkatari eta ostalariei prestakuntza ikastaroa eskaini zitzaien.

Programaren helburua saltokiak adineko pertsonen beharretara egokitzea da, beren autonomia gaitasuna bermatzen jarraitzeko. Horretarako, jarraibide eta gomendioak ematen dira.

Izan ere, gaur egun, 10etik bi pertsona adinekoak dira Euskadin eta zifra honek gora egingo du datozen urteetan.

Adineko pertsonak, gainera, kontsumitzaile handiak dira eta gertuko merkataritza txikira jotzen dute zerbitzu ona leialtasunez saritzen dute eta. Baina askok, ordea, arazo eta zailtasunak izaten dituzte zenbait saltokitara joatean.

Proiektu honen bitartez, beraz, aipatu zailtasunak eta arazoak gainditu nahi dira. Ostalaritzako establezimenduak eta saltokiak bezero guztiekin lagunkoiak izan daitezen egokituko dira, bereziki adineko pertsonei dagokienez. Ikastaroa amaitzean, partehartzaileek "Lagunkoiak gara" zigilua jasoko dute

Joan den urtean Beasaingo 17 dendarik parte hartu zuten programan eta "Lagunkoiak gara" zigilua jaso zuten. Aurten, zigilua dutenei jarraipena egingo zaie eta Beasaingo Merkataritza Lagunkoia sarea handitzeko eta partaide berriak erakartzeko deialdi berria egingo da.

***¿Qué es Beasain Lagunkoia?***

*La iniciativa Lagunkoia es un proyecto al que se sumó el Ayuntamiento de Beasain hace ya varios años que tiene como objetivo incentivar la participación de las personas mayores y de la ciudadanía en general para la mejora de barrios y entornos del municipio atendiendo a las necesidades de las personas mayores a fin de garantizar su autonomía e independencia el mayor tiempo posible. Busca, por tanto, generar entornos de vida facilitadores y amigables para las personas que envejecen en nuestros municipios.*

*La prolongación de la vida activa y la autonomía dependen en gran parte del diseño urbano, de la seguridad y de la adecuación de los diferentes espacios y ambientes.*

*Estos y otros aspectos han sido analizados ya en la primera fase de Beasain Lagunkoia por el grupo de trabajo compuesto por Asmube, Gueske, Nagusilan y Aranealde y en el que puede participar cualquier persona interesada en trabajar para la mejora del bienestar de las personas en Beasain.*

*Ahora se abordarán las cuestiones planteadas en la fase de análisis y se definirá un plan de actuación por áreas: vivienda, urbanismo, comercio, comunicación, respeto e inclusión de las personas mayores, entre otras. Gracias al trabajo realizado por el grupo Lagunkoia se han identificado las viviendas del municipio que deben pasar la I.T.E y en los próximos meses se enviará una carta de aviso a todas aquellas viviendas identificadas y a ese respecto, el Ayuntamiento está trabajando una línea de subvenciones que se incluirá en los presupuestos para el año 2018.*



***Dentro de la iniciativa Beasain Lagunkoia, el año pasado 17 establecimientos del municipio participaron en el programa "Comercio Amigable" que busca adecuar los comercios y establecimientos a las necesidades de las personas mayores con el objetivo de mejorar su bienestar y garantizar su autonomía e independencia en la mayor medida de lo posible.***

***Por medio de una nueva convocatoria, este año se quiere lograr ampliar la red de comercios amigables en Beasain.***

## Zenbait aholku zure establezimendua lagunkoia bihurtzeko
## *Consejos para un comercio amigable*




1. **Oztopo arkitektonikoak ezabatu (eskailerak…)**
   *Elimina las barreras arquitectónicas (escaleras…)*
2. **Deskantsatzeko espazioak eskaini (eserlekuak…)**
   *Ofrece espacios de descanso (banco, silla…)*



3. **Argiztapen ona bermatu**
   *Garantiza una buena iluminación*
4. **Ulerterrazak diren testu eta kartelak erabili (apaingarririk gabeko letrak, tamaina handikoak…)**
   *Utiliza carteles o textos legibles (letras sin adornos, de gran tamaño y sobre fondo blanco )*
5. **Musika altu izatea saihestu**
   *Evita tener la música muy alta*
6. **Poliki eta modu argian hitz egin**
   *Habla despacio y con claridad*



7. **Atsegina izan eta pazientzia izan**
   *Se empático/a y ten paciencia*
8. **Irribarre egin eta errespetuz hitz egin**
   *Sonrie y habla con respeto*






**UDAZKEN KULTURALA**
*Klik batean*
*En un Click*

## EZAGUTU UDAL WEBGUNEKO BERRIKUNTZAK
*CONOCE LAS NOVEDADES DE LA WEB*

**Agenda | Noticias | Udal Euskaltegia | Flicker | Oficina virtual | Deskarga gunea | Perfil del contratante**

**EUSKALTEGIAK ATAL BERRIA DU WEBGUNEAN**
*NUEVO APARTADO DEL EUSKALTEGI EN LA WEB*

**www.beasain.eus/euskaltegia**

**Egin zure matrikulazioa webgunearen bitartez**
*¡Matricúlate e infórmate por medio de la web!*




# DATUEKIN JOLASEAN

**Ba al dakizu zenbat diru biltzen den udal tasa nagusien bidez eta zenbateko kostua duten zerbitzu hauek?**

***¿Sabes cuánto se recauda con las principales tasas municipales y cuánto cuestan dichos servicios?***

| **UDAL TASA** *TASA MUNICIPAL* | **Herritarrek ordaindutakoa** *Cobrado a la ciudadanía* | **Zerbitzuaren kostua** *Coste del servicio* |
|---|---|---|
| **TAO** *OTA* | **212.240,93€** | **222.324,06€** |
| **ZABOR BILKETA** *RECOGIDA DE RESIDUOS* | **1.248.827,14 €** | **1.278.735,28€** |

Beraz, **tasa hauen bidez bildutako dirua herritarrei eskainitako zerbitzuaren kostua ordaintzeko erabiltzen da**, nahiz eta kasu gehienetan gastuek diru sarrerak gainditzen dituzten. Hala gertatzen denean, Udalak ordaintzen ditu gainkostu horiek.

*Por tanto, **el Ayuntamiento destina el dinero de estas tasas a cubrir el gasto de los servicios prestados a la ciudadanía** aunque en muchos de los casos los gastos superan los ingresos.*

## JAKINARAZPENAK *NOTIFICACIONES*

### EGUTEGI FISKALA *CALENDARIO FISCAL*

| **ZERGAK ETA TASAK** *IMPUESTOS Y TASAS* | **Kobrantza epea** *Periodo de cobro* |
|---|---|
| **Ibilgailuak finka hiritarretan sartzeko sarrera** *Entrada de vehículos a fincas urbanas* | 2017.09.01 - 2017.10.31 |
| **Ibilgailuen geraleku eta kokagunea** *Parada y situación de vehículos* | 2017.09.01 - 2017.10.31 |
| **Zabor bilketa** *Recogida de Basuras* **(2.seilekoa** *2ºsemestre***)** | 2017.09.01 - 2017.10.31 |
| **Jarduera ekonomikoaren gaineko Zerga (J.E.Z.)** *Impuesto sobre Actividades Económicas (I.A.E.)* | 2017.10.01 - 2017.11.10 |
| **Kioskoak herri bideetan** *Quioscos en la vía pública* | 2017-10.01 - 2017.12.01 |

## LOTURAK *ENLACES*

- **kzGunea**
  www.kzgunea.eus
- **Musika Eskola**
  www.beasaingomusikaeskola.eus
- **Antzizar kiroldegia**
  www.antzizar.net
- **Udal Euskaltegia**
  www.beasain.eus/euskaltegia

**www.beasain.eus**

**Beasaingo** Udala

Lege gordailua SS 403-2016